



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Bizitzaren sostengarritasunerako
bidean: herri mugimenduen
antolaketa egiturak eta militantzia
eredu berriak**

Nerea Blanco Aramendia

177-184 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.22>



Bizitzaren sostengarritasunerako bidean: herri mugimenduen antolaketa egiturak eta militantzia eredu berriak

Blanco-Aramendia, N.
nereablanco06@gmail.com

1. LABURPENA

Artikulu honetan herri mugimenduen kontzeptuaz eta euren jardunak bizitzaren sostengarritasunarekin duen harremanaz arituko gara. Hainbat autorek edozein gizarte mugimenduren helburua eraldaketa soziala dela baieztatzen dute. Horri lotuta, egun osasun krisiak eragindako egoerarekin, eta horrek dakartzan bestelako krisiekin eraldaketa sozial oro bizitzaren sostengarritasuna aintzat hartzearen garrantzia planteatuko dugu. Horretarako, Lizarraldeko mugimendu feministaren antolaketa egiturak eta militantzia ereduak ardatz izango ditugu ardatz.

Hitz gakoak: herri mugimenduak, antolaketa egitura formalak, antolaketa egitura informalak, militantzia ereduak eta bizitzaren sostengarritasuna.

In this paper we will discuss how social movements are bonded with the sustainability of life. Some authors assert that the target of every social movement is the social transformation. Therefore, we will point out that every social transformation must consider the sustainability of life. Thus, as social movements pursue their targets, build specific organizational structures in order to ensure the sustainability of the group. Considering that fact, we will also discuss the formal and informal organizational structures of social movements, as well as the militancy models that they enable. To do this, we will analyze the organizational structures and militancy models of the Tierraestella feminist movement.

Keywords: social movements, formal organizational structures, informal organizational structures, militancy models and sustainability of life.

2. SARRERA/UNEKO EGOERA

Lizarraldeko mugimendu feministak, beste hainbat herri mugimenduri jarraikiz, bere sostengarritasuna ahalbidetzeko antolaketa egitura nahiz militantzia eredu zurrunen aurrean, eredu alternatiboak lehenetsi ditu. Izan ere, jakina denez, egungo gizartea aldakorra da erabat, eta hori gutxi balitz, krisi anizkoitza dakarren osasun krisi baten baitan murgildurik gaude. Beraz, horretara egokituko diren egiturak eta militantzia ereduak behar ditugu, baldin eta justizia sozialaren eta eraldaketa sozialaren alde lan egiten duten eragileak indartsu eta osasuntsu bizirautea nahi badugu. Hori dela eta, Lizarraldeko mugimendu feministaren inguruko azterketa egiteaz gain, Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik ikerketa (2020) plazaratu berri da. Aipaturiko gizarte aldakorraren eta krisia nagusi den testuinguru batean, gizarte mugimenduen artean sortutako sareak eta elkarlan-dinamikak aztertzea helburu izanik. Euskal Herrian eraldaketa soziala bilatzen duten herri mugimenduak laguntzeko bidean, Joxemi Zumalabe Fundazioa eta bere Dabilen harriari goroldiorik ez lana (2014) dugu. Bertan, militantzia eredu berriak, antolaketa egitura horizontalak eta gizarte mugimenduen sostengarritasuna ahalbidetzeko bestelako estrategiak landu dira.

3. IKERKETAREN HELBURUAK

3.1. Helburu orokorra: herri mugimenduek eragile barne hartzaileak, demokratikoak eta gardenak izateko eta bai taldeen bai militanteen bizitzak sostengarriak egiteko sortzen dituzten antolaketa egituren eta funtzionamenduaren eragina aztertzea.

3.2. Helburu zehatzak:

- Herri mugimenduen jarduna eta bizitzaren sostengarritasunaren artean egun dauden loturak aztertzea eta horietan sakontzea.
- Herri mugimenduen antolaketa egitura formalek taldeen zein militanteen bizitzaren sostengarritasuna jasotzeko ahalbidetzen dituzten baldintzak aztertzea.
- Mugimendu Feministak militanteen zein taldeen zaintzari begira, militantzia eredu berrien inguruan egin dituen ekarpenak bildu eta aztertzea.

4. IKERKETAREN MUINA ETA ONDORIOAK

4.1. Herri Mugimenduak eta gaur egungo erronkak

Herri mugimenduek¹ euren ingurua aldatzeko nahia izan ohi dute, eta behar horri erantzuteko izaera bat zein antolatzeke modu bat hartu ohi dute. Della Portaren eta Dianiren arabera (2015) gizarte mugimenduen baitan antolakuntza eredu anitz zein aunitz elkarbizi dira. Ildo beretik, McCarthy eta Zaldek (1979) proposatutako Gizarte Mugimenduaren Antolakuntza (GMA) ezinbesteko kontzeptu bat da. Izan ere, autore hauek diotenez eta Lizarraldeko mugimendu feminista ardatzen duen asanbladak aditzera ematen duenez, gizarte mugimenduek gizartearen aldaketa nahiari erantzuten diote, eta horretarako, antolakuntza formal batzuk dituzte beren helburuak aurrera eramateko. Hortaz, esan genezake, herri mugimenduek antolakuntza formal hori euren helburuen arabera eraikitzen dutela. Ildo beretik, Tarrowk (1997) aipatzen duen gisara, herri mugimenduek parte hartzaileak eta aliatuak lortzeko mobilizaziorako aldi baterako egiturak sortzen dituzte. Hala ikusi dugu Lizarraldeko mugimendu feministaren kasuan, aldi baterako egiturak sortu dituelarik Martxoak 8 edota bi urtetik behin burutzen diren jardunaldiak antolatzeke batik bat.

Esan herri dugunez, eta Ibarak (2005) ere aipatzen duenez gizarte mugimenduek berdintasuna, justizia eta askatasuna bezalako kontzeptuak berrezartzea helburu gisa izan ohi dute. Are gehiago, herri mugimenduek jorratzen dituzten ikuskera analitiko guztien arabera, hauek eraldaketa soziala bilatzen dute. Baina zer esan nahi du horrek? Hainbat autoreren arabera eraldaketa soziala prozesu gisa hartzen den eta arazoan konponbidean oinarritzen den “kontzeptu multidimentsionala” da (Canaval, 2000:38). Eraldaketa sozialak “eragileek aldaketa sistemikoak gauzatzen dituzten fenomeno zirkularrak dira” (Urteaga, 2009:28).

Beraz, krisi klimatikoak eta osasun krisiak, beste krisi batzuen artean, aspalditik dakartzaten egoera dela eta, eraldaketa soziala ezin da bizitzaren sostengarritasuna erdigunean izan gabe ulertu. Egungo egoerak ekartzen dizkigun arazoei erantzuteko, halabeharrez, bizitzaren sostengarritasunari erantzun behar diogulako. Izan ere, kontzeptu honetaz ari garenean, Boschek, Carrascok eta Grauk (2005:322) adierazten dutenez, “bizitza jarraitzeko aukera errealarari -termino gizatiarretan, sozialetan eta ekologikoetan- erreferentzia egiten dion kontzeptua izateaz gain, prozesu horrek populazio guztiarentzat bizi baldintza, bizitza estandarrak edo bizitza kalitate onargarriak garatzeaz ere ari

¹Hainbat eratako gizarte mugimenduak daude, baina artikulua honetan interes herrikoien alde lan egiten duten horiek hizketagai ditugu; hau da, herri mugimendu izaera duten horiek. Beraz, oraingoan, gizarte mugimendu eta herri mugimendu kontzeptuak sinonimotzat joko ditugu.

baikara”. Azken batean, Carrascok (2016) azaldutako legez, bizitzaren sostengarritasunaz dihardugunean, hiru dimentsio kontutuan hartu behar ditugu: merkatuarentzako ekoizpena, dimentsio ekologikoa eta zaintzaren dimentsioa; baina bizitzaren zaintza erdigunean kokatuz.

Hortaz, behatu dugunez, herri mugimenduek bizitzaren sostengarritasuna erdigunean behar dute izan. Lehen azaldu dugun gisara, gizarte mugimenduek euren helburuen arabera euren antolatze modua sortzen dute. Beraz, herri mugimendu ororen helburua, azken batean, bizitzaren sostengarritasuna bada, herri mugimendu ororen antolakuntzaren egitura helburu horren arabera eraiki beharko da. Horrela, militanteen barne hartzea zein taldeen zaintza eta bizitza sostengarriak ahalbidetuz eta hori bermatuko duten antolaketa egitura demokratikoak, gardenak eta barne hartzaileak marraztuz.

4.2. Antolaketa egitura formal eta informalak

Egitura formalak taldearen nahiz taldekideen ongizatea erraztuko du; izan ere, Escorihuelak (2015:2) dioenez, egitura formalak “antolakuntza urrats eta prozedimendu eraginkor batzuek hornitzeko egiten duen koordinazio planifikatuaren ondorioa da”. Gune formalak “kolektibo batek bere lanak antolatzeko eta banatzeko, erabakiak hartzeko edota zereginak koordinatzeko” dituen esparruak dira: “bilerak, asanbladak, jardunaldiak, etab” (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014). Hortaz, egitura formalak informazioaren, boterearen eta erabakien demokratizazioa eta gardentasuna; eta beraz, taldekideen barne hartzea eta ongizatea bermatu dezakeen tresna gisa ere defini daiteke.

Izan ere, Freemanek dioenez (1998) taldeek beti egitura bat dute, formalak edota informala; baina beti dute. Egitura formalak duten taldeek egitura informala ere izan dezakete. Hori “kolektiboko kide guztiak zertan egon ez duten espazioa da, hots, deialdi formalik gabe sortzen den espazioa (tabernako solasaldiak, bilera bat hasi aurretik edo burutu ondoren inpresioak elkartrukatzeko ditugun telefono-solasaldiak, e-mezuak,...)” (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014:88). Horregatik, Lizarraldeko mugimendu feministaren kasuan bezala, asanbladak deitzeko arduradun espliziturik azaleratzen duen egitura formalik ez dagoenean, normalean, egitura informalean daudenek egin ohi dute. Hori dela eta, bertan, egitura informala formalaren gainetik nagusitu da; egitura formalaren antolaketa egitura informala osatzen dutenek daramate eta.

Hala, egitura informala sormena bezalako dohaiak areagotzen dituen arren, egitura formalak sendo baten falta dagoenean, “eliteen garapenerako oinarriak sortzen ditu”. *Elite* kontzeptua erabiltzean, ekintza politikoak batu duen lagun taldeaz ari gara. Esparru berean militatzeko interesak eta interes horiek aurrera eramateak sortzen duen laguntasuna da elitea sortzen duena (Freeman, 1998:33). *Eliteen* sorreraren ondorioz, botere harremanen asimetriaren areagotzea eta bazterketa prozesuen birsortzea gauzatzen da. Izan ere, Lizarraldeko kasuan beha daitezkeen den moduan, informazioa behar bezain gardena eta elkarbanatua ez izateak, mugimenduko zenbait militante beren banako ikuspegitik aritzea sorrarazten duen artean, egitura informalearen parte diren taldeek iritzi-kolektiboak eta sendoak izatea ahalbidetzen du; horrela botere harremanen birsortzea eraginez. Horrek asanbladaren sostengarritasuna bera kolokan jartzen du; informazioa, eta beraz, erabakitze ahalmena eta boterea taldekide gutxi batzuen esku geratzen baita.

Escorihuelak (2015) adierazten duenez, botere harremanen birsortzeak, eta beraz, areagotzeak mina sortzen du *elitearen* kanpo geratzen diren taldekideen artean. Ondorioz, botere harreman horiek desartikulatzeko egiturak zein praktikak berregin behar dira, taldekide guztiak barne hartzen dituen

informazioaren eta arduraren birbanaketa egokia egiteko. Horrela, militante guztiek erabaki guneetara heltzeko eta, azken batean, boterea izateko aukera izan dezaten.

Izaera demokratikoa eta barne hartzaila duten taldeek, funtzionamendu horizontala lehenesten dute. Baina horretarako, funtzionatzeko moduak partaide guztiek ezagutu behar dituzte. “Horregatik asko zaindu beharra dago funtzionatzeko arau eta kodigo horiek denok ezagutzea eta zalantzan jartzeko edo aldatzeko modukoak izatea. Baina horretarako funtzionatzeko arauak agerikoak egin eta, seguru asko, nonbaiten jaso beharko genituzke” (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014:92).

Beraz, Martínez-Hernandezek hitzetan (2014; hemen aipatuta: Amurrio eta Larrinaga, 2017) zein Lizarraldeko mugimendu feministan behatu dugunez, aunitzetan, horizontaltasunak eta infomaltasunak erabakiak hartzeko modu ez demokratikoak edota partaide berrien bazterketak ezkuta ditzake. Hala, Lizarraldeko asanbladak *horizontaltasunaren*, *barne hartzearen* eta *hierarkia ezaren* aldeko diskurtsoen atzean, militatzeko eredu zurrinak lehenesten dituela aurkitu dugu. Hauek, hain zuzen, ezker abertzaleko historia militantearekin estuki harremandu izan dira. Izan ere, mugimenduan indarra dutenak eta erabakitze prozesuan eragiteko ahalmena dutenak sakrifizioan oinarritutako militantzia erduei jarraitzen dietenak dira. Baina sakrifizio hori egin ahal izateko, baliabideak ere eskuragarri izan behar dira. Horren adierazle, asanbladetan parte hartze eskasa duen talde bateko militante baten testigantza dugu. Honela dio egitura formalaren parte diren talde baten burkideez, miresmenarekin, erabakitze prozesuetan duten indarraren arazoiez:

“Lan handia egiten duten neskek direlako, entregatzen dira. Nik beren antolaketa miresten dut, beraiek ekintza bat egin nahi dutenean elkar babesten dira, denak. Ez diote denborari begiratzen ez ezer, elkar babesten dira... piña bat bezala dira [miresmenarekin, indarrez]. Eta klaro, gazteak direnez hemendik, handik.... joateko astia dute, beste ekintzez jabetu, beste lekuetako talde indartsuagoez komunikatzen dira, sareetara sarbidea dute, informatzen dira... Orduan nik uste dut hori dela beren abantaila” (E2).

Hala ere, horizontaltasunaren eta herri mugimenduen demokratizazioaren esparruan, mugimendu feministak ekarpen garrantzitsuak egin ditu. Mugimendu feministak eta emakumeek ostaturiko zenbait mugimenduk hierarkia ezaren eta deszentralizazioaren aldeko joera hartu dute. Modu hauek, emakumeen sozializazioan nabarmenak izan direnak, botere harremanetan horizontaltasun handiagoa duten antolatzeko modu alternatiboetara hurbiltzen ditu emakumeak. Gizarte mugimenduetan hegemonikoak diren antolaketa eredu maskulino, hierarkiko eta arrazionalen aurrean, emakumeek lehenesten dituzten antolaketa moduak emozioen adierazpenetara irekiak eta besteen zaintzara zuzendutakoak dira (Mansbridge, 1990; Young, 2002; hemen aipatuta: Amurrio eta Larrinaga, 2017). Hala, esan genezake, mugimendu feministaren ekarpenek, egun herri mugimenduek duten bizitzaren sostengarritasunaren erronkara hurbildu gaituztela, bere antolatzeko eta jarduteko modu eraldatzaileekin. Horren adierazle ere Lizarraldeko mugimendu feminista dugu, burkideek adierazten dutenaren arabera, talde batzuek behintzat militanteen zaintza erdigunean kokatu dute:

“Familia gara. Eta hor sentitzen duzu babes, sare izugarria. Lehen esan dizudana, zaintza erdigunean jarri da eta horrek egin du gure artean militantziaz haratago izan den erlazio bat sortzea (E5).

4.3. Mugimendu feministaren ekarpenak: militantzia eredu berriak

Ikuspuntu aunitz zein anitzetatik hausnarketa piztu da, eta Luxan, Ormazabal, Txurruka eta Dañobeitiaren hitzetan (2014:95-96) militantzia ereduak aldatzen ari dira: hala izanik, militantzia “eredu zurrinak” zein autoritarioak eta “botere harreman” desorekatuak bezalako ezaugarriekin hautsi nahi da. Bestetik, “errespetua eta elkar zaintzan” oinarrituz, “harreman pertsonalen lanketa”, “formazioa”, “talde dinamika osasuntsuen garapena” eta “ikuspegi eraldatzailea” indartu nahi dira;

eta, aipatu dugunez, bide horretan ikusi dugu ere Lizarraldeko mugimendu feminista bere militantzia ereduaren egin dituen aldaketetan. Baina mugimendu feministak orokorrean ere ildo horretatik ekarpen garrantzitsuak egin ditu. Izan ere, mugimendu feministaren ustetan, “egitura hierarkikoetan oinarrituriko antolakuntza” “gizarte patriarkalari berezkoa zai”. Beraz, egitura horiek ez birsortzeko, erabakiak asanblada bidez hartzearen ideia eta lidergotza konpartitzearen ideia nagusitu ditu mugimenduak (Berbel, 1997:87).

Hau da, mugimendu feministak horizontaltasunaren aldeko diskurtsoa erdigunean kokatu du; eta aunitzetan ere praktikan jarri du. Horren adierazle Errenterriko Emakumeen Etxearen sorrera-prozesua dugu. Bertan, erakunde publikoen eta mugimendu feministaren elkarlanarekin hirurogei emakume ingururen parte hartzea lortu duten asanblada irekiak antolatu dira. Prozesua horizontala eta barne hartzailea izateko nahiak erritmoak moteldu ditu, baina balorazio positiboa izan du, erabaki gehienak emakumeak biltzen zituzten asanbladetan hartu direlako (Ruiz et al., 2020).

Hortaz, horizontaltasunean oinarritu nahi diren militantzia eredu berri horiek harreman pertsonalak, “errespetua eta elkar zaintza ardatz izanik”, lantzea beharrezkoa dute (Joxemi ZUmalabe Fundazioa, 2014:14). Militantzia esparruak nahiz bizitza militanteak sostengarriak behar dute izan; bai bizitzaren sostengarritasunaren helburuarekin koherenteak izateko baita denboran ere sostengarriak izateko.

Horri lotuta, 2017an militantzia feministaren inguruan FeministAldek eta Viento Surrek antolaturiko *Militantzia feminista gaur. Aktibismo feministaren era berriak ezbaian* mintzaldian azaldutako legez, militantziak iraunkorrak eta eraginkorrak diren partaideak nahi baditu, ezin du bizitza alboratu. “Bestela konpromisoa aro zehatz batzuetan soilik har liteke, egoera pertsonal jakin eta idealizatueta soilik: familila zamarik gabe, baliabide ekonomikoak izanda, gaztea eta osasuntsua izanda...” (Aranguren; Herrero eta Montero, 2017:7). Horren adierazle Lizarraldeko mugimendu feminista dugu, bertan ezker abertzaleko familia ideologikotik hurbilago dauden emakumeak -batez ere gazteak direnak-, zuriak, euskaldunak, kapital kultural handikoak eta klase sozial ertainekoak direnak egitura informala osatzen dutenak; eta beraz, asanbladaren dinamizazioa eta edukiak ardatzen dituztenak izaten baitira.

Hori saihesteko eta bizitza-ziklo ezberdinak barne hartzeko, taldean dagoen giroa behatu behar da eta harremanak landu behar dira. Izan ere, “taldekideen arteko harremanak eragin zuzena dute proiektuen eta lan ildoen emaitzetan”. Horregatik, taldekideen motibazioa eta egoera zein sententzioak aztertzea garrantzitsua da; baita “pertsonen artean sortzen diren lotura afektiboaren zaintza” egitea ere (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014:14-15).

Esan bezala, taldekideen artean sortzen diren harremanek proiektuetan zein emaitzetan eragiten dute. Horren harira, esan beharra dago, talde guztiak norbanako modura lortu ezin dituzten helburuak lortzeko asmoarekin batzen edo sortzen direla. Gainera, taldeek ere taldekideen zenbait behar edota interes asetzeko aukera ematen dute; nortasun kolektibo bat eraikitzearen beharra batik bat. Bi horiek lortzeko hirugarren aldagai bat sortzen da talde guztietan: talde-prozesua, emaitzak eta banako interesak lortzeko taldea mantendu behar delako (Arrow et al, 2000). Horren harira, Escorihuelak (2015) honako irudia azaltzen du taldekideen, prozesuen eta emaitzen arteko elkar-ekintzaren bidez, taldeen eraginkortasuna lortzeko irizpideak zein diren adierazteko:

1. Irudia: talde eraginkortasuna neurtzeko irizpideak



Iturria: egileak itzulia, Escorihuela oinarri hartuta.

Irudian aditzera ematen denez, prozesua, emaitza eta pertsonak aintzat hartu beharreko aldagaiak dira; hirurak elkarren artean eragina baitute. Hala, emaitzen edo helburuen lorpenaren, taldekideen interesei eta behar pertsonalei erantzutearen eta prozesua zaintzearen arteko oreka beharrezkoa da taldearen eraginkortasunaren mesedetan. Bestela, talderen batek emaitzak helburu izanik, taldekideen beharrak eta emaitzak lortzeko prozesua alboratuko balitu, gatazkak azaleraztearen aukerak areagotuko lituzke; horrek ere emaitzetan eragina izanik. Modu berean, soilik taldekideen beharretara begira dagoen taldeak, taldearen elkar-ekintzan jazotzen diren prozesuak zein emaitzen lorpena baztertzen baditu, ezinegona sortuko du, emaitzik lortu ez duelako; eta beraz, taldekideen beharrak asetzeko zailtasun handiak izango ditu (Escorihuela, 2015).

4.4. Ondorioak

Taldeek beren helburuen arabera antolaketa egitura ezberdinak sortzen dituzte. Eta, esan bezala, egungo gizarte aldakorrek eta krisi anizkoitzak herri mugimenduen jardunak bizitzaren sostengarritasuna aintzat hartzea eskatzen du. Hortaz, taldeek egitura sostengarriak behar dituzte. Honen ondorioz, behintzat, bi emaitza, izan ditzakete herri mugimenduek: batetik, helburuekin bat datorren antolaketa egitura izatean, eraginkortasunez bizitzaren sostengarritasunerako bidean urratsak ematea. Bestetik, helburuak lortzeko beharrezkoak diren militante eta talde egonkorak eta iraunkorak erraztea militantzia eredu zein antolaketa egitura sostengarrirei esker.

Horri lotuta eta behatu dugunez, egitura informalak mugak jartzen dizkion egitura formala ez duenean, *elite* baten sorrera ahalbidetzen du. Lizarraldeko mugimendu feministaren kasuan ikusi dugunez, egitura informalak botere asimetriak areagotzen ditu. Botere asimetria horiek, aldi berean, modu informal batean sortzen diren *eliteen* bitartez gorpuztu dira. Asanbladen ordutegiaren harira edota mugimenduak hartu dituen helburuen eta talde azpiratuenen arteko talkaren harira, kasu, ikusi dugu, botere asimetria horietan sakondu dela. Hala, egitura informala osatzen duten horien esku erabakiak -helburuak eta ordutegiak besteak beste- egonik. Ondorioz, ezinbestekoa zaigu botere harreman eta bazterketa prozesu horiek identifikatzea eta taldean azalerazte; modu ezkutuan edo inplizituan funtzionatzen ez jarraitzeko eta mugak ezarriko dizkieten mekanismoak ezartzeko. Horrela, taldeen iraunkortasuna eta egonkortasuna mantentzea errazagoa izango da; eta hori euren helburuak betetzeko bidean lagungarria izango zaie.

Ildo beretik, informazioaren kudeaketa eta boterearen banaketa demokratikoa egingo duen egitura formala ezarriko bagenu, eta egitura formal horrek erabakiguneak nahiz erabakiak hartzeko moduak zein diren zehaztuko balitu, talde sostengarriagoak izango genituzke. Eta, beraz, arestian

aipatu legez, herri mugimenduen helburua den bizitzaren sostengarritasunetik gertuago egongo ginateke; taldearen antolakuntza, helburua lortzeko izango duen eraginkortasunean, erabakiorra delako. Ondorioz, informazioaren eta boterearen kudeaketa demokratikoa egingo duten eta gardenak zein barne hartzailak izango diren egitura formalen beharrea gaude, herri mugimenduen osasuna, egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatzeko.

Horrekin bat eginez, militantzia iraunkorrak lortzeko militanteen profilak eraldatzeko beharra dugu. Hauen presio-maila murriztuz eta zaintzarako esparruak zein esparru pertsonalak ere aintzat hartuz eta militantziaren parte gisa ulertuz. Izan ere, Lizarraldeko mugimendu feministan aztertu denez, egitura informala osatzen duten horiek dira militatzeko moduak eta profilak zehazten dituztenak. Era berean, hauek dira baliabide gehiago dituztenak eta militatzeko bizitza-zikloan daudenak. Beraz, euren militantzia ereduak nagusitzen badira, ez dira militantzia eredu sostengarriak eta beraz, taldearen egonkortasunerako egokienak izango. Ondorioz, taldearen ongizaterako baldintzak sortuko dituzten egitura formalak behar ditugu. Horretarako, aurreko paragrafoetan zehaztutako irizpideak betetzea ezinbestekoa izango da. Aipatu bezala, taldekideen ongizateak eta taldeak duen giroak helburuak betetzeko eraginkortasunean eragin handia izan ohi dute. Hortaz, militanteen zein taldeen zaintzaren ondorioz, bizitzaren sostengarritasunetik hurbilago egongo gara. Gainera, bizitzaren sostengarritasuna lortzeko bidean, ez luke zentzu handirik izango militante nahiz talde minduak eta nekatuak uztea.

5. ETORKIZUNERAKO PLANTEATZEN DEN NORABIDEA

Ikerketak etorkizunerako hartu nahi duen norabideak hainbat bide jorratzen ditu. Batetik, egungo egoeran herri mugimendu ororen jardunak, azken batean, bizitzaren sostengarritasuna aintzakotzat hartzen badu, bizitzaren sostengarritasuna oinarri hartuta sor daitezkeen aliantza horiek nondik eta nola sor daitezkeen aztertzea ikerketa-bidea litzateke. Modu berean, erakunde publikoei dagokienez, gobernantza eredu komunitarioen esperientzietatik bizitzaren sostengarritasunaren inguruan eratoritzen diren diskurtsoak eta praktikak zein lan-esperientziak ikertu nahi ditugu. Horren adierazle, COVID-19ak ekarritako osasun krisia dela eta sortutako zaintza-sare komunitarioak izan dira; aunitzetan erakunde publikoekin elkarlanean aritu direnak.

6. ERREFERENTZIAK/BIBLIOGRAFIA

Amurrio, Mila eta Larrinaga, Ane (2017). “Movimientos sociales, participación y dominación”, Martínez-Palacios, Jone (koord.). *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*. Bartzelona: Icaria.

Aranguren, Miren; Herrero, Yayo eta Montero, Justa (2017). *Militantzia feminista gaur. Aktibismo feministaren era berriak ezbaian*. Mintzaldia. Bilbo: La Bolsa. [On-line] eskuragarri hemen: http://www.feministalde.eus/wp-content/uploads/2017/12/Militantzia_ponentzia_2017-1-27.pdf [Kontsulta eguna: 2021/02/21].

Arrow, H., McGrath, J. eta Berdahl, J.L. (2000). “Small Groups as Complex Systems. Formation, Coordination, Development, and Adaptation”. Sage Publications.

Berbel, Sara (1997). *Relaciones de influencia entre grupos de mujeres: un análisis evolutivo de los discursos*. Doktore tesia. Bartzelona: Universitat de Barcelona. [On-line] eskuragarri hemen: <https://www.tdx.cat/handle/10803/2673#page=97> [Kontsulta eguna: 2020/05/05].

Bosch, Anna; Carrasco, Cristina eta Grau, Elena (2005). “Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo”. En Enric Tello, *La historia cuenta: Del decrecimiento económico al desarrollo sostenible* (pp. 321-346). Barcelona: El Viejo Topo.

Canaval, Gladys Eugenia (2000). “El cambio social: análisis del concepto y aplicación en la investigación, educación y práctica de los profesionales de la salud”. *Colombia Médica* [On-line] 31, 37-42, eskuragarri hemen:

<https://www.redalyc.org/pdf/283/28331108.pdf> [Kontsulta eguna: 2020/05/15].

Carrasco, Cristina (2016). “Sostenibilidad de la vida y ceguera patriarcal. Una reflexión necesaria”. *Atlánticas* [On-line] 1, 34-57, eskuragarri hemen:

<https://core.ac.uk/download/pdf/75988523.pdf> [Kontsulta eguna: 2020/05/11].

Dañobeitia, Olatz et al. (2014). “Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta”. *Jakin*, 203, 94-107.

Della Porta, Donatella eta Diani, Mario (2015). *Los Movimientos Sociales*. Madril: Universidad Complutense.

Escorihuela, Jose Luis (2015). “Modelo de efectividad grupal”. *Ulises*

Esteban, Mari Luz et al. (2020). *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*. Bilbo: EHU.

Freeman, Jo (1988). *La tiranía de la falta de estructura*. Madril: Forum de Política Feminista.

Ibarra, Pedro (2005). *Manual de sociedad civil y movimientos sociales*. Madril: Síntesis.

Joxemi Zumalabe Fundazioa, (2014). *Dabilen harriari goroldiorik ez*. Donostia: Joxemi Zumalabe Fundazioa. [On-line]. Eskuragarri hemen: <http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf> [Kontsulta eguna: 2020/04/12].

Luxan, Marta et al. (2014). “Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta”. *Jakin*, 203, 94-107.

McCarthy, John D. eta Zald, Mayer N. (1979). “Social Movement Industries: competition and cooperation among movement organizations”. *CRSO Working Papper*, 201, 1-32.

Ruiz, María et al. (2020). “Erretereria. Aniztasuna eta horizontaltasuna antolatzen”, Mari Luz Esteban (arg.) *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*. Bilbo: EHU.

Tarrow, Sidney (1997). *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la actividad colectiva y política*. Madril: Alianza Editorial.

Urteaga, Eguzki (2009). “Sociología de los cambios sociales”. *Ámbitos aldizkaria* [On-line] 21, 27-40, eskuragarri hemen:

https://helvia.uco.es/xmlui/bitstream/handle/10396/13125/ambitos21_04.pdf?sequence=1&isAllowed=y [Kontsulta eguna: 2020/04/16].